



CAMPOS RUBIO, Arantza

Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa

BIBLID [1137-1951 (1997), 2; 31-46]

Estatu gabeko gizarteek Zuzenbiderik al dute?

Zuzenbide Teoria Orokorraren ikuspuntutik, Estatu gabeko gizarteetan Zuzenbide existentziaren arazoa

(Do stateless societies have Law?
The problem of the existence of a Law in stateless societies
is raised in terms of the General Theory of Law)

Artikulu honetan galdera bati erantzuten saiatu naiz. Gure Zuzenbidearen Teorian ez dugu kontzeptu edo irizpiderik (juridikotasuna, legitimitatea, subiranotasuna, baliogarritasuna eta eraginkortasuna) Estaturik gabeko gizarteak Zuzenbiderik gabekoak direla esateko. Indarraren erabilpenaren bitartez irabazi duen sistema araukorrek bakarrik merezi duela *juridiko* kalifikazioa, eta beraz, derrigorrezkoa eta obeditua izan behar duen bakarra dela, egun geroz eta sostengaezinagoa den ideia dugu. Ez da bide egokia gaur egun gizatalde desberdinek duten garrantziko loturari erantzuna emateko.

En el presente artículo he intentado responder a una cuestión determinada. En nuestra Teoría del Derecho no tenemos conceptos ni criterios (juridicidad, legitimidad, soberanía, validez y eficacia) para afirmar que las sociedades sin Estado sean sociedades sin Derecho. Que el sistema normativo que ha prevalecido por el uso de la fuerza y que, por lo tanto, resulta obligatorio y ha de ser obedecido, sea el único merecedor de la calificación de *jurídico* es una idea cada vez más insostenible. No es el camino adecuado hoy en día para dar respuesta a determinados grupos humanos unidos por un vínculo importante.

Dans cette article, j'ai essayé de répondre à une question déterminée. Dans notre Théorie du Droit nous n'avons pas de concepts ni de critères (judiciaire, légitimité, souveraineté, validité et efficacité) pour affirmer que les sociétés sans Etat soient des sociétés sans Droit. Que le système normatif qui a prévalu par l'usage de la force et que, de ce fait, il devienne obligatoire et doit être obéi, qu'il soit le seul à mériter la qualificatif de juridique est une idée de plus en plus insoutenable. Ce n'est pas aujourd'hui la voie adéquate pour répondre à des groupes humain unis par des liens importants.

1. Sarrera. 2. Erakuntza politiko erak. 3. Botere politikoa eta Zuzenbidearen arteko harremanak: 3.1. Zuzenbidea eta Estatuaren arteko harremanak. 3.2. Zuzenbidea eta Estaturik gabeko gizarte arteko harremanak. 4. Zuzenbidearen Teoria Orokorren eraginak. 5. Ondorioak.

1. Sarrera

Sarrera moduan esan nahi dugun lehenengo gauza da Mendebaldeko kultur-esparru barruan garatu diren gehiengo ikerketak, bai Estatu Teorian bai Zuzenbide Teoria Orokorrean¹, botere politiko edo antolakuntza politiko eta Zuzenbidearen artean ematen diren harremanak azaltzen sailatu direla. Gehiengo ikerketa hauek Zuzenbidearen eta Estatuaren arteko harremanak pribilegiatuak direla mantentzen dute, eta honen ondorioz bi esparru hauek ez dira nahastu bakarrik egiten, baizik eta kausa-ondorio erlazio baten bidez identifikatzen dira.

Zentzu honetan antolakuntza politikoa estatal modukoa ez den gizarte horietan Zuzenbidearen existentzia bideraezina denaren ideia, Zuzenbidearen teoriko eta gaur eguneko politologo gehiengoaren gune amankomuna bilakatu da.

Artikulu honetan Zuzenbidea eta Estatuaren artean ezartzen diren harreman biuniboko horiek zalantzan jartzen saiatuko gara, modu honetan posibilitate berriak eta perspektibak irekiko dituen galderak posible izan daitezela eta errealitatea osatzen duen guziaz objetibitate handiagoz lor dadin.

Zuzenbidearen eta botere politikoaren arteko harremanak perspektiba zabalago batez, edo hain etnozentrismo ez den batez hala nahi bada, sakontzen lagunduko digun gertaera, mendebaldeko kultur esparruaren barnean

diziplina akademiko bezala antropologia juridikoaren sarrera dugu. Datuek, ezagutza eta metodoek, eta baita aipatutako diziplinak gehitzen dituen zalantza berriek ere, gure teorien barnean Zuzenbidea eta Estatuaren artean ezarri diren harreman pribilegiatuakiko hausnarketa egitera behartzen gaituzte.

Ez da gure helburua irtenbide orokor eta bakarria eskaintzea. Hain zuzen ere, gure lehen interesa nabaritasunez azaltzen dena adigarri egitea baita. Bestalde, onartu beharra dugu praktikoki ezinezko egiten zaigula Estatuarena ez den antolakuntza politikoko gizarte horiek zuzenbide gabekoak direla mantentzen jarraitzea.

Handikeria deritzogu giza erakundearen errealitatean iragaten eta ematen den guztia baina bestaldetik gure eredu teoriko arrazional eta mitorik gabeko omen direnekin bat ez datorrena, irrazional, mitiko, antolaketa eta erakuntza eza bateko ingurukoak direla mantentzen jarraitzeari. Positiboagoa den zentzu batean, pentsatzen dugu gaur eguneko errealitatea adierazteko gai ez diren zenbait kategoria kontzeptudun aipatutako kategoriekin bat ez joateagatik ez direla errealitate ukatu horrekin errespetotsuago soilik agertzen, baizik eta teoria beraren barnean posibilitate edo aukera teoriko berriak irekitzen dituela.

Gure lanerako erreferentzia den kuestio baten aipamenarekin hasiko gara. Kuestioa da gure garaian ezin izan zela Zuzenbidearen kontzeptu batera iritsi; ez behintzat modu batean zein bestean unibertsalki onartua izan zen batera, gauza bera gertatu delarik Estatuaren kontzeptuarekin. Zentzu honetan pentsatzen dugu Zuzenbidearen azterketa boterearen erabilpen modu batera mugatzeak, hau da, estatu moderno bakoitzak duen ordenamendu positiboko arau multzora mugatzeak, muga teoriko bat ezarriko litzatekeen: Zuzenbidearen Teoria Orokorreko multzoan momenturarte barneraturik ez dauden gaur eguneko arau fenomenoen azalpen ahalmenaren edo pentsatzearen ezinezkotasuna. Bigarrena, Zuzenbidearen Teoria Orokor berak

1. Gure mendeko Zuzenbide ikaskuntzan eraiki diren bi korrante garrantzitsuren lanei buruz hitzegiten ari gara. Biek (Zuzenbide Teoria araukorrek eta Zuzenbide Teoriak erakunde bezala) suposatzen dute Zuzenbidea arauen gehiketa bat baino zerbait gehiago dela. Baina hori bai, bi teoria hauek Zuzenbidea arauen multzo organizatu bat dela era ezberdinetan ulertzen dute. Zuzenbide Teoria araukorren barruan dauden autoreek, (H.KELSEN, *Teoría pura del Derecho*, 2.edizioa alemanaren itzulpena Roberto J.Vernengo-k, México, UNAM, 1986(5.)), H.L.A.HART, *El concepto de Derecho*, Izulpena.G.Carrió-k, Buenos Aires, Abeledo-Perrot, 1968 eta N.BOBBIÓ, *Giusnaturalismo e positivismo giuridico*, Milano, Edizioni di Comunit, 1965) beren azterketak arau juridikoan zentratu dituzte, arau juridikoek instituzioak sortzen dituztela baieztatuz; beste autore batzuek (S.ROMANO, *El ordenamiento jurídico*, itzulpena Sebastián Martín-Tetortillo eta Lorenzo Martín-Retortillo-k, Madril, Instituto de Estudios Políticos, 1963 eta M. HAURIÓ, *Teoría dell'instituzione e della fundazione*, Milano, 1967) Zuzenbidea instituzio bat dela mantentzen dute, instituzioek Zuzenbidearen arauak sortzen dituztela baieztatuz eta Zuzenbidearen arauak instituzioak sortzen dituztela ezeztatuz. Zuzenbide Teoria araukorren autoreentzat arauak Zuzenbidearen benetako elementu objektiboak dira eta horrexegatik arauak Zuzenbidearen juridikotasunaren iturriak dira. Zuzenbidea instituzio bat dela mantentzen duten autoreentzat berriz instituzioak Zuzenbidearen iturriak dira, instituzioak Zuzenbideari bere juridikotasuna ematen diotenak dira.

duen ezagutza unibertsalaren bokazioaren ukapenean datza.

Unibertsalki onartua den Zuzenbidearen kontzeptua eskura izatearen ezinezkotasunak, hurrengoak baieztatzera garamatza: gizarte guztiek haien kide edo partaideen jokabideei mugak ezartzen dizkietela egia da, eta hala eta guztiz ere, aipatutako mugak Zuzenbidearen osagai edo integrante bezala kontutan hartu behar ote diren geure buruei galdetzen jarrai diezaiekegu. Baita ere, legea, funtzionario berezi edo auzitegiek ezarritako Konstituzio eta estatutuak baino zenbait gehiago bezala ulertua izan daitekeela. Aukera bikoitz honek, Zuzenbidearen ikasketa haietako bakar batera mugatzeak -hau da, Zuzenbidearen eta Estatuaren arteko harremanen kuestiora- Zuzenbidearen Teoria Orokorrak soilik Zuzenbide positiboaren azterketara mugatu behar duelaren baieztapen inplizitua darama.

Hala ezagutzen dugu Zuzenbide positiboaren gure estatu modernoetan, legea, aipatutako Zuzenbide positiboaren baino zerbait gehiago bezala ulertzeko aukera kanpoan utziaz.

Eremu teorikoan, Zuzenbide positiboaren Zuzenbide bezala ulertzen dugunaren arau bihurtzean, aipatutako murrizketak estatu modernoaren intolerantzia beste kultura eta posibilitate juridiko moduetara, antolamendu praktikoaren barnean, promoziona dadila eragiten dugu. Aipatutako mugaketa Estatuaren Teoriari² berezko zaiola egia izan arren, ezin duela Zuzenbidearen Teoria Orokorrena izan azpimarratu behar dugu.

Baina ez da Zuzenbidea eta botere politiko edo erakunde politikoaren arteko harremanak jasotzerakoan kontutan izan behar den kuestio bakarra. Izan ere, nahiz eta alde batetik askotan, zentzu oso orokor batez, Zuzenbidea *“como un conjunto de normas explícitas o implícitas para el comportamiento de los miembros de la sociedad, generalmente reconocidas o aceptadas y para las cuales existen sanciones positivas o negativas”*³

bezala kontsideratu, bestaldetik ere, maiz, Zuzenbidea komunitateko kide desberdin eta taldeen arteko harremanak egituratzeaz arduratzen dela kontutan hartu behar dugu. Zentzu honetan, gizarte gehiengoetan bezala, legearen zati garrantzitsu batek botere politiko eta bere erakunde bidez funtzionatzen duela egiazta dezakegu eta noizbehinka oso zail egiten zaigu legea eta antolaketa politikoa⁴ bereiztea. Sistema politikoaren eta Zuzenbidearen arteko harreman estuak, sistema politiko eta haiek harreman dutako instituzioekiko ikuspegi zabalago bat hartuz behartzen gaitu.

Zuzenbideak antolaketa politikoarekin edota botere politikoarekin mantentzen dituen nabaritasunezko harremanetan oinarrituz, azaldu nahi dugu Zuzenbidea⁵ eta bere karakterizazioari buruzko hausnarketa ez dutela Estatuaren funtzioak eragiten dituzten gizarte guztiek agortzen, ezta Zuzenbidea adierazteko asmoa ere; eta guk Estatu gisa ezagutzen dugun forma edo egitura politikoa ez duten gizarte horiek antolakuntza politiko nahiz Zuzenbiderik gabeak ere ez direla; izaera juridikoko arau sistemarik gabekoak ere ez direla alegia. Perspektiba berri honek, beste gizarte motez gain, geurea propioa dena ere ulertarazten lagunduko digu.

Lehen atal bezala eta antropologia politikoaren⁶ aportazioak kontutan harturik, gaur egun ematen diren antolakuntza politikoko modu desberdinei buruz arituko gara; zentzu honetan, “aintzin herri” edo “herri indigena” deiturikoen antolakuntza politikoko sistemak Estatu bezain operatiboak diren erakuntza politiko bezala hartuko ditugu, eta ez azken honen umeki edo hazi tankera gisara. Zuzenbidearen Teoria Orokorri interesatzen zaizkion kuestioak behatuko ditugu; hala nola, autoritate, zuzentasunaren eta zilegitasunaren arazoak eta erakuntza politikoa euren Estatuaren den gizarteetan, nahiz Estatu gabeko deituriko gizarteetan.

Gaur eguneko errealitatearen zailtasuna kontutan hartuko duen ikasketak aniztasun juridikoaren ideira gerturatzen lagunduko digu,

2. H. HELLER-ek baieztatzen duen bezala, *Estatuaren Teoria*, Mexico, 1990, 200. or. “El derecho positivo, que es el único al que puede referirse la Teoría del Estado, no es un orden natural...”
3. R.L. BEALS, H.HOIJER *Introducción a la antropología*, Madril, 1981, 132. or.
4. E.FERNANDEZ, “El Derecho como ordenamiento jurídico”, VVAA-an, *Introducción a la Teoría del Derecho*, Valencia, 1992 “..según señala el propio Santi Romano, su concepción se diferencia de la de Hauriou en que aquel no cree que la institución sea fuente del Derecho y que éste sea un efecto, un producto de la primera, sino que para él existe una perfecta unidad, una perfecta identidad entre el concepto de institución y el de ordenamiento jurídico” 151. or.
5. Aurrerago ikusiko dugun bezala, konkretuki Zuzenbidearen zilegitzapen eta Zuzenbideak nahi dituen suposamenduei buruzko burutapena. G. Reabruich, Hart, Fuller...-ek nazi edo aintzinako Hegoafrikako Estatuari buruz hitz egiten dutenean egin dituzten burutapenak gogoratu behar ditugu. Autore hauek zalantzan jartzen dute estatu horien sistema araukorra esanez sistema horiek Zuzenbidea ote diren.
6. G.BALANDIER, *Anthropologie politique*, Paris, 1967; R.BASTIDE, *Formes élémentaires de la stratification sociale*, Paris, 1965; P.CLASTRES, *La société contre l'état*, Paris, 1974; J.W.LAPIERRE, *Vivre sans Etat? Essai sur le pouvoir politique et l'innovation sociale*, Paris, 1977; E.LE ROY (Dir.) “Etats, Violences et Societes” *Bulletin de Liason-ean, publicac.espec. del Laboratoire d'Anthropologie Juridique de Paris*, 1994, 19.zkia., ekaina; M.ABENSOUR, ed, *L'esprit des lois sauvages. Pierre Clastres ou une nouvelle anthropologie politique*, Paris, 1987.

non existitzen diren eskubideek elkarbizitza egiten duten estatu modernoan antolamendu positiboekin. Horrez gain, guk ordenamendu logiko eta arrazionaltzat jotzen dugunak ezabatutzat genituen eta primitibo deritzogun gizarteetan soilik eman zitezkeela uste genuen zenbait elementu barneratuta dituela erakustean, geure antolaketa politiko eta juridikoaren erlatibotasunarekiko ikuspegi desberdin bat edukitzen lagunduko digu.

2. Erakuntza politiko erak

Gure antolamendu politikoarengandik, hau da, Estatuarengandik, aiseki desberdingarriak diren beste antolamendu eta funtzionamendu moduek gaur eguneko giza komunitate mota desberdinen existentziari erantzuten diotela, zailtasun handiz uka daitekeen gertaera bat da. Teoria politikoaren esparruan, aipatutako komunitateen (gaur eguneko guztien, Estatura barne) posibilitatearen baldintzei buruzko galdera, bai formazio eta bai garapen mailan, bizkortasun handienaz erantzuna izan behar zuen kuestioetako bat izan da. Komunitate horiek nola, noiz, zergatik eta zertarako eratzen diren, lotura politiko edo antolamendu politiko zertan datzaten zehazten saiatzera eramán du, eta gaur egun existitzen diren gizarteek aipatutako lotura badute, hau da, gizarte guztiak politikoki antolatuak badaude eta horrela bada, zeintzuk dira, bat baino gehiago izatekotan, antolamendu politiko mota desberdinekoak.

Gure teoria politiko berriak eratu duen azalpen potentzia handieneko mitoetako bat "kontratu soziala"-rena izan dela onartu beharra dugu. Hobbes-ek⁷ adierazi zuen "kontratu soziala" ez zela derrigorrez espazio eta denboran zehaz zitekeen gertaera bat bezala kontutan hartu behar. Egia dena zera da: Rousseau, Locke, eta Hobbes berarengandik garatutako teoria desberdinek, gaur egun teoria politikoaren esparruan erabiltzen diren kontzeptuen zati handi bat mugatu dutela. Aipatutako teoriaren lorpen arrakastatsuenetariko bat izango litzateke Estatuaren agerpena, antolaketa politikoaren adierazpen garatu eta perfektu gisa, baita lotura politikorik gabekotzat jotzen ditugun beste gizarteekiko dugun ikuspegia, estatu antolamendu motarik gabeko gizarteak izateagatik.

Mito honetan oinarrituz azaldu ohi da Estatuaren agerpena, gizateriaren "naturaren estatutik" -non bere ezaugarririk oinarritzkoena lotura politiko baten existentzia eza zen- "gizarte zibil" batera, hau da, Estatura, urrats bezala, lotura politiko duen antolamendu bakarra izanik. Mendebaldeko mito honen ondorioz, denbora luzean zehar gizarte "primitibo" edo aintzineko deiturikoak naturaren estatu horren gaur eguneko adierazgarri zirela suposatu da; beraz, lotura politiko baten gabeziak zeuden gizarteak ziren eta horrenbestez, edozein motatako antolamendu politikorik gabe. Jarraian ikusiko dugun bezala, argibide mito hau ez da mito bat besterik, oso aipagarria halere: alde batetik, gure antolamendu politiko ulergarria egin diezagun, baina bestetik, ez da gai besteak adierazteko. Kontratu sozialaren teoriak aintzin gizarte eta indigenetan ematen den antolamendua behebaloratzek, gizarte horiek ulertzeko aukera zaildu egiten du, lotura politiko eta antolamendu politikoaren ideia errealago bat edukitzea galaraztearekin batera.

Antropologia politikora⁸ jotzea ezinbestekoa zaigu, horrela unibertsalagoa den modu batez eta aurreritzi gutxiagorekin lotura politiko zertan datzan eta gaur egun existitzen diren gizarteetan antolamendu politikoko modu desberdinak zeintzuk diren jakiteko.

Teoria politikoaren eremuan "gubernua" eta "politika" artean bereizketa egiteko joera izan da. Alde batetik, "gubernua"-z, Estatu baten boterearen marko instituzional batez bezala hitzegin da, hau da, erakunde legegilearen eta gobernu lokaleko antzko erakundearen egitura eta jardunbide bezala; "politika"-z, bestetik, gobernuaren ekintzan eragiten duten talde eta gizabanakoen jokabideaz bezala hitzegiten da.

Politika ulertzeko modu murriztu honek berriro ikusarazten digu sistema politikoaz orokorrean hitzegiten saiatzerakoan alde batera uzten dela, nahita edo nahigabe, zehazki zeri buruz hitzegiten ari den: estatu modernoan barruan ematen den antolamendu politikoaz, alegia.

D.D. Raphael bezalako autoreek politika eta sistema politiko izenak zentzu zabalago batean erabiltzen dituzte; izan ere, politika eta sistema politikoaz honokoa ulertzen dute: "el conjunto de instituciones que interpretan y hacen cumplir la ley, además de aquellas que la crean y

7. T.HOBBS, *Leviatan o La materia, forma y poder de una república eclesiástica y civil*, Manuel Sánchez Sarto-ren itzulpen eta aitzinsolasa, México, FCE, 1940. Ikus ere M.ABELES, *Anthropologie de l'Etat*, Arman Colin, Paris, 1990: liburu honetan autoreak "kontratu soziala"-ren mitoa desegiten du. Eta N.FRYEren, "Diversas utopías literarias", *Utopías y Pensamiento Utópico*, Espasa Calpe, Madril, 1982, 55-81 orr.
8. Honako hauek dira existitzen direnen arteko lan garrantzitsuenetariko batzuk: M.ABELES, *Anthropologie de l'état*, o.c., eta P.CLASTRES, *La société contre l'état*, Paris, 1972
9. D.D. RAPHAEL, *Problemas de filosofía política*, Madril, 1983, 37. or.

la aplican⁹. Legea edo Zuzenbidea estatu modernoen zuzenbide positiboarekin identifikatzen ez dela ikustean, Estatu bezala itxuratua ez dauden gizarte horiek beste antolamendu politiko moduren bat eduki dezaketenaren aukerara jotzen da. Zentzu honetan, lotura politiko ulertzeko modurik murriztuenari soma diezaiokegun lehen eragozpena, Estatu ez diren gizarteak existitzen direla baieztatzen duena da, baina bertan ekintza politiko argi bat agertzen delarik. Gizarte hauek, Zuzenbideari eta Estatu diren gizarteen gobernuari berdintsuak zaizkien eskema doituak dituzte.

Antropologia politikoaren eremuan izan diren aportazio desberdinek honokoa bat etortzera bultzatu ditu hainbat autore: giza harremanak doitzen dituzten mekanismoak, taldearekin zerikusia duten aldarteetan osotasunean hartuaz, denbora eta leku batetik bestera aldatzen diren mekanismoak dira. Hauek izan daitezke *“los gobiernos con un aparato completo de gobernantes y funcionarios, con formas reconocidas de maquinaria legal, de policía, y de ejércitos, hasta instituciones tan vagas, tan amorfas, que algunos investigadores se niegan a llamarlos gobiernos, aunque reconozcan su carácter político”*¹⁰.

Suposamen amankomun honetatik abiatuz, L. Mair, G. Balandier, H. Bianchi eta A. Knopf¹¹ bezalako autoreek, gaur egun existitzen diren sistema politiko desberdinen sailkapena zuzkitu digute. Aipatutako sailkapenak, kutsu etnozentrismo bat du; izan ere, zenbaitetan, mendebaldeko kultura beraren produktu diren teoretan birstortzen edo oinarritzen da. Baina, zalantzarik gabe, gure kulturak besteez aditzera eman nahi duenean dituen mito eta aurreritziak desegiten laguntzen digute.

Azterketa alderagarri¹² batetik, instituzio politikoaren lehen ikerketak kontuan baditugu, haietan, lehen gizakien bategitearen lotura bezala ahaidetasuna hartzen dela aintzat behatzen dugu. Baina lehen lotura hau ez da lotura politiko propio bat bezala gogoan hartua izan. Antolamendu politikoaren agerpena, ahaidetasunarengatik lotuta eta lurralde bateko jabegoan oinarrituta dauden zenbait talderen bategiteak bakarrik egiten duela posible baieztatzen da. Horrenbestez, lotura politikoaren edo antolamendu politikoaren agerpena, ahaidetasunarengatik bateginiko zenbait talde



daudeneko lurralde zehatz batekoa izatearekin erlazionatzen da. Modu honetan, lotura politikoaren ideia ahaidetasunetik lurraldetasunera desplazatzen da.

Hau da Maine eta Morgan¹³-ek azaldutako jarrera, zeinak arrakasta izan zuen; izan ere 1927an Lowie bezalako autoreek erakunde politikoaren jatorria zehazten zuena ahaidetasuna edota lurraldetasuna ote zen agertzen zuten oinarritzko zalantza bezala. Jatorriari buruzko galdera honen bidez, aintzin herriek ahaidetasun ala lurralde loturaren arabera egiten ote zuten bat jartzen zen zalantza eta beraz, politikoki antolatuak ote zeuden ala ez. Esan dugun bezala, galdera hau jatorriarekin zegoen harremanetan, eta honenbestez, ez zegoen lehen ikasketa antropologikoen eragin bilakatzailetik at. Hauetan onartu egiten zen erdigunetu gabeko sistemak geroago botere forma espezializatuago bilakatuko direnaren hasiera zirela, azken fasea

10. A. KNOPF, o.c., 360. or.

11. L. MAIR, *El gobierno primitivo*, Buenos Aires, 1970; G. BALANDIER, *Anthropologie politique*, Paris, 1967; H. BIANCHI, "El hombre y su sistema jurídico", H-G. GADAMER ETA P. VOGLER-en (zuz.), *Nueva Antropología*, Barcelona, 1976; A. KNOPF, *El hombre y sus obras*, Bogotá, 1976.

12. Mota honetako ikerketak egiten dituzten lehendabiziko autoreak honako hauek dira: Lewis H. Morgan-ek, "aintzin herri"-en materialak erabiltzen ditu eta Sir Henry Maine-k, India eta Irlandako datu historikoak erabiltzen ditu, baita aintzin Ingalaterrakoak ere.

13. Ikus H.S. MAINE, *Etudes sur l'histoire des institutions primitives*, Ernest Thorin, Paris, 1880, eta L.H. MORGAN, *La société archaïque*, Paris, Anthropos, 1971.

Estatuarena¹⁴ den antolamendu politiko hobezinaren agerpena izango delarik.

Ez dira urte asko igaroko jarrera hau zalantzan jarria izan arte. Radcliffe-Brown¹⁵-en ustez, ahaidetasunean oinarritutako gizarteak eta lurralde amankomun baten okupazioarekin osatutako gizarteen artean bereizten saiatzeak, lehenengoak¹⁶ bigarrenak¹⁷ baino aintzinagokoak direla pentsatuz, egoera korapilatzera eramaten du, edota okerragoa dena, aterabiderik gabeko kale batera.

Mami bezala teoria bilakatzailerak zuten ikasketa antropologikoen ikuspegi eta emaitzei autore honek eta beste zenbaitek gauzatutako kritikak, lotura politikoaren jatorriari buruzko galderak baztertu eta operatiboagoak diren galdera berriak kontutan edukitzera eragingo du.

Aurkitzen ditugun ikerketa berriak antolamendu politikoaren aldarte operatiboetara begira jarriko dira. Mekanismo politikoaren ekintzez galdegingo dute, antolamendu politiko eta bere adierazpen modu desberdinak zehaztearen saioarekin gobernuaren eginkizunez galdetzerakoan, perspektiba funtzionalista¹⁸ irekiaz.

Egoera berri honetan antolaketa politikoaren ikasketari aurre egiterakoan, kontuan hartu beharko da giza antolamendu guzientzat ezarritako giza ordenaren mantenuak duen garrantzia, lurralde egitura mugatu baten barruan eta autoritate hertsatzailearen egikaritzea antolatuaren bidez. Estatu modernoek beren lurraldearen barruan giza ordena, legeak bortxatzen dituztenak zigortuz eta talde matxinatuak indar armatuaren bidez erreprimatuz mantentzen dutela argudiatuko da, baita beren lurraldetik kanpo gudaren bidez beste Estatuak kontra egiten. Gobernuak hitzegiterakoan Zuzenbideari aipamena egin behar izateak, gure giza errealtatearen aldarte arautuenetako bat

izanik berau, Zuzenbidearen adierazpenak hain formalak ez diren tokietan antolamendu politiko edo gobernurik existitzen ez dela kontuan hartzea eraman gaitzake. Baina, erregeak, presidentek, parlamentuak eta asanbladak, poliziak, epaitegiak... ez dauden tokietan gobernurik ez dagoela onartzea, antropologiaren irakasketetako bat baztertea litzateke. Antropologiak -beste gizarteetan pareko helburuak betetzeko erabilitako instituzioak zehazteko irizpide bezala- baieztatzen du ez dela inongo kultura bereziren inongo instituzioaren forma eduki behar.

Momenturarte esandakoarekin, antolamendu politikoaren denaren erregulatzailerak bezala hurrengo irizpidea onar genezake: edozein gizarteren aferak zuzentzen eta bertako kideen jokabideak doitzen dituzten erakundeak, instituzio politiko bezala hartu behar dira.

Irizpide honetan oinarrituz, gizarte batean antolamendu politikoaren existitzen dela onartuko dugu eta beraz, baita gobernu bat ere, buruzagi batek nahiz buruzagi talde batek helburu batzutarako errespetuaz eta leialtasunaz gozatzen duenean:

- 1) talde politikoaren barnean bakea mantentzea;
- 2) komunitateko enpresak antolatu eta gidatzea;
- 3) taldearen ekintzak zuzentzea; hala nola, etxeko orden¹⁹ bereko unitateen aurka guda.

Antolamendu politikoak mahaieratu den irizpideari gagozkiola, antolakuntza politikoan hiru kategoria ezar daitezke, edo gauza bera izango litzatekeena, existitzen diren gizarteak hurrengo taldeetan²⁰ zatitzea.

14. Estatuaren ideia eboluzionista hau ikuspegi historiko batetik zalantzan jar daiteke, inka eta azteken estatuak beren konkistatzaileek ezarri zituzten sistemak baino askoz garatuagoak baitzeuden, edo Erdi Aroko Europan existitzen ziren estatuak baino. Ikus G.H. SABINE, *Historia de la Teoría Política*, FCE, Mexico, 1991.

15. A.R. RADCLIFFE-BROWN, 1940, o.c., XIV. or.

16. Antropologo desberdinek bosquimano-ek dituzten ahaidetasun harremanak oso korapilatsuak direla azpimarratu dute. Harreman horiek ondo ulertzeko ordenagailuak beharrezkoak dira. Datu hau kontuan hartzen badugu oso zaila da mantentzea "que las relaciones en una sociedad como la de los bosquimanos es menos compleja que en otra cuyo lazo fundamental sea el territorio".

17. Jarrera honi buruz gogoratu behar dugu A. KNOPF-ek esaten duena: "Además, tales intentos de reconstruir la prehistoria del desarrollo político, para lo cual se equipara al "primitivo" actual con sus antepasados prehistóricos, viola un principio básico del método antropológico, según el cual los pueblos ágrafos del momento presente no son nuestros "antepasados contemporáneos" o.c., 362. or.

18. B. MALINOWSKI, *Trois essais sur la vie sociale des primitifs*, Paris, Payot, 1968. Autore honek Teoria funtzionalista eratu zuen. Autore hau eta bere teoria, azalpen historikoen kontra joateagatik karakterizatzen dira. Eboluzionismoaren kontra teoria honen "kausa"-ren ideari buruzko okerkuntza azpimarratzen du. R. NORBERT-ek, *Anthropologie juridique*, Paris, 1990, azaltzen digu "la cause de l'état présent d'une société ne réside pas dans son stade de développement antérieur, mais dans l'agencement interne des différents éléments qui constituent son système social, et qui accomplissent différentes sortes de fonctions, répondant à la satisfaction de besoins qui sont fondamentalement les mêmes dans toute société." 36. or.

19. Saillikapek hau R. LIBEALS eta H. HOIJER-ek eman digute. o.c., 473. or.

20. Beti kontuan hartu behar dugu inolako saillikapek ezin duela iaz edo gaur egun existitzen den errealtate guzian ondo azaldu.

Lucy Mair²¹-en arabera, gizarte desberdinak antolamendu politikoko hiru kategoritan sailka ditzakegu:

- 1) Benetzako antolamendu politikorik ez duten gizarteak; hau da, osatuak dauden familia indibidualak nagusitzen dituztenen gainetik eta aparte, bertako taldeak ez du jarraia edo ongi zehaztua den inongo buruzagitza sistemarik. Funtzio politikoak existitzen dira, baina ez antolamendu politikorik.
- 2) Politikoki banda, tribu edo konfederaziotan antolatutako gizarteak, non biztanlegoa pilatuagoa dagoen, eta ekonomiak aurrekoenak baino bizibide aberatsagoa ekoizten duen, baina ez dira aborokin aldagarriak sortzen eta guda, nahiz eta sarritan eman eta garrantzi handiarekin maiz, ondoko unitate politikoaren arteko amaigabeko erasoetara mugatzen da. Gudak erabakiorragoak direnean, beren emaitza bakarra unitate etsaiak suntsitu eta kanporatzea da, baina ez eurak menperatu eta ekonomikoki esplotatzea.
- 3) Estatu menperatzaile gisa antolatutako gizarteak, erasoengandik indarrez ezarriak direnak, non konkistaturiko herriak orokorrean ez diren suntsituak, baizik eta estatu menderatzaileari beheklase bezala batzen zaizkie. Biztanleria asko da eta oso pilatua eta ekonomiak aborokin aldagarriak ekoizten ditu. Botere agintaria, gehiengoetan, gutxiengo hereditario²² baten esku geratzen da.

Beraz, orain artekoan, Estatu baten gabetasuna ez dela mekanismo politikoaren gabetasunaren sinonimo egiaztatu ahal izan dugu.

Baieztapen honek, Estatu gabeko gizarteek antolamendu politikoaz gain, Estatuaren barnean ematen den beste arau adierazpenik ba ote duen galdetzerara behartzen gaitu.

Zuzenbidea sistema politikoarekin sakonki loturik dagoenez, hau izango da gure hurrengo galdera: posible al da Zuzenbidea Estaturik gabeko gizarteetan?.

3. Botere politikoa eta Zuzenbidearen arteko harremanak

Lehenik, Estaturik gabeko gizarteetan Zuzenbidearen existentziarekiko galdera eman nahiko genuke aditzera. Hau mendebaldeko galdera bat dugu. Gure gizarteetan existitzen diren agindu arautuek gure jokabidea doitzen ote duten galdetzen ez dugun bezala -izan ere, gozatu edo jasan egiten baititugu-, beste gizataldeei gauza bera gertatzen zaiela suposatuta behar dugu. Gu, batez ere, Zuzenbide deritzon orden arautu hori nola, zergatik eta zertarako existitzen den eta gure antolamendu politikoarekin zein motako harremana mantentzen duen ulertzen saiatzen gara.

Baieztapen honetatik ondoriztatu behar dugu Estaturik gabeko gizarteetan gure Zuzenbideari baliokide zaion orden arauturen bat existitzen ote den galdetzen dugunean, argitu behar dugula nola, zergatik eta zertarako existitzen den orden arautu hori eta aipatutako gizarteek duten antolamendu politikoaren formarekin nola erlazionatzen den.

Lehen momentutik, Zuzenbide eta Estatuaren artean ezartzen diren harremanak arakutzen saiatzea beharrezkoa da, plazaratutako lehengo galderari erantzuna emateko.

3.1. Zuzenbidea eta Estatuaren arteko harremanak

Sarrera moduan esango dugu gure kultura juridikoaren eginbeharretako bat gizarteetan ematen diren beste arau ordenak eta Zuzenbidea bereiztea izan dela. Besteak beste esaten da, Zuzenbidea -arau orden bezala- beste arau ordenengandik, erlijioarengandik, moralarengandik... bereizten dela, izan ere, haren edukia giza ekintza baten gizarte eraginkortasunaren balioan soilik datza; hau da, gizartearen beraren formazioari begira izan dezakeen balioan. Honenbestez, Zuzenbidearen arauen eraginkortasuna, bere gaur egungo karakterizazioaren kuestio aipagarrienetariko bat da.

Baina giza arau erlatiboek -zeintzuen funtzioa gizarte zehatz batean orden eraginkor baten ezarketan datzan-, ez lukete inongo

21. L. MAIR o.c., 153. or.

22. Saillkapen honen arabera aztertu diren herriak honako hauek dira: eskimalak eta mendebaldeko chochoniak, orda karia, andamanesar gunea, indio beleak, Polinesiaiko samoanoak, iroqueseen liga, Mexikoko aztecak eta Peruko inkar inperioa.

zentsurik izango haren azterketa erregularra ziurtatzea posible ez balitz, beste arau sistemak ere beren arau propioak aztertzeko gai baitira.

Zuzenbidearen teorizapen aipagarrietan, Zuzenbidearen arauen partikulartasunaren defentsa ez datza hainbeste bere edukian, baizik eta arauen ezarketa egozten zaion autoritatean. Modu honetan, autoritatearen kuestioa, Zuzenbidea karakterizatzerakoan eta honen harremanak Estatuarekin zehazterakoan, Zuzenbidearen Teoria Orokorra arduratuko duen oinarritzko beste kuestioetako bat izango da.

Planteamendu hau jarraituz aurkitzen duguna da, Zuzenbidea, ezartzeko eta bere betebeharrak ziurtatzeko moduarengatik bereizten dela beste giza ordenamendu arautuengandik, erregela konbentzionalengandik.

Ordenamendu juridikoak bere esanetara erakunde berezi bat duela kontutan hartu behar dugu, non bere organo desberdinek egin behar zehatz bezala Zuzenbidearen jaiotza eta mantenuan duten, beraz, estatal moduko antolamendu batean Zuzenbidearen sorrera eta betearazketarako organo horiek Estatuaren organoak direla egiaztatzea ez zaigu zaila egingo.

Baina gertakizun hau egiaztatu ahal izanek ez digu ahaztarazi behar gure kulturako eta politikako aktibitate propioaren parte dela Zuzenbidea erregela konbentzionalengandik gradualki desberdintzen aritzearen prozesu motela, orden juridikoen²³ eraketara zuzendutako instantzia legegile eta judizialen antolamenduaren bidez. Hori dela eta, Zuzenbidea eta Estatuaren artean harreman biunibokoa ezartzeak frogatzen duen bakarra, prozesu honetan Estatu subiranoak derrigorre fisiko zilegiaren monopolioa lortu duela da eta beste instantzia autonomo guztien aurrean erabaki eta ekintzaren gizarte unitate gorenean bihurtzen dela. Zentzu honetan baieztatu behar dugu, erakunde estatalaren organo berezien bidez ezarri eta ziurtatzen den gizarteko arau ordenazioari Zuzenbide izendapena ematea, adostasunezko arrazoi erlatibo eta arbitrarioetan baino ez dela oinarritzen.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, ez dago orden teorikoko inongo eragozpenik egitura ez

estatal baten inguruan politikoki antolatutako beste taldeek Zuzenbidea sortu eta haren betearaztea berma dezaketela onartzearekin; izan ere, Zuzenbidea karakterizatzeke beste modu bat, zilegizko indarkeria erabiltzeko gaitasuna da, eta hau ez da Estatuaren ezaugarri eskusiboa.

Edozein modutan, estatal izaera egozten dio gure kultura juridikoak Zuzenbideari, Estatuaren benetan Zuzenbidearen baliozko iturri formala dela gogoan hartzen baitu, bere organoen bitartez Zuzenbidea ezarri eta ziurtatzen duelako eta Zuzenbide konsuetudinarioaren baliogarritasun baldintzak seinalatzen dituelako.

Argudiaketa honi adieraz diezaioketun ezadostasuna Pierre Clastres²⁴-ek egiten duena da. Hain zuzen ere, zenbait eduki juridiko ez bakarrik Estatuarengandik at, baizik eta -mingarriki- Estatuaren aurka ere existitzen direnaren zentzuan aipatzen dugu.

Zuzenbidea eta Estatuaren baliokidetzeko saio teorikoek ez dute kontutan hartzen Estatu bat oso totalitarista izan arren ezin izango duela gizarteko errealitate osoa barneratu, ezta Zuzenbidearen indar ekoizlea osorik suntsitu.

Momenturarte esandakoarekin, Zuzenbide kontzeptuaren benetako funtsa derrigorre dela pentsa genezake, eta ondorioz, Estatuarekin duen harreman estua -azken honek Zuzenbidea aplikatzeko zilegitasuna duelarik-, baina nazioarteko Zuzenbidea benetako Zuzenbidea ote den bezalako kuestioetan sartu gabe. Izan ere, ez dago organorik Estatuari Zuzenbideak agindutakoa betearazteko gaitasuna duenik. Estatal izaerakoak ez diren beste antolamendu politikoetan ere, koakzioa ematen dela kontutan hartu behar dugu. Gure gizarteetan Zuzenbidearen baliogarritasun eta positibotasuna, Estatuaren eta Zuzenbidearen arteko korrelazioa gabe ulertezina izateak ez gaitu planu teorikoan oker ondorioztatzea eraman behar.

Planu teorikoan, Zuzenbidea gaur egungo Estatuaren derrigorrezko baldintza bezala ulertu behar da, eta modu berean, Estatuaren orainaren²⁵ Zuzenbidearen beharrezko baldintza bezala.

23. H. HELLER-ek o.c., 204. or.-n desberdintasun prozesu honen zergatia azaltzen du: "al aumento de la interdependencia y el intercambio, consecuencia de la creciente división del trabajo, con el que se hace más necesaria una ordenación normativa social establecida de modo consciente y según un plan, y que, en lo posible, sea previsible en su ejecución. Sólo en la época de la economía de cambio muy avanzada le fue posible a la jerarquía del Estado organizar un orden normativo semejante". Nahiz eta artikulu honetan Zuzenbidearen azterketa ekonomikoa kanpoan utzi, azterketa horren garrantzia ezin da ukatu.

24. P. CLASTRES o.c.

25. H. HELLER o.c., 209. or. "Sin el carácter de creador de poder que el derecho entraña no existe ni validez jurídica normativa ni poder estatal; pero sin el carácter de creador de derecho que tiene el poder del Estado no existe positividad jurídica ni Estado. La relación entre el Estado y el Derecho no consiste ni en una unidad indiferenciada ni en una irreductible oposición. Por el contrario, esa relación debe ser estimada como una relación dialéctica, es decir, como relación necesaria de las esferas separadas y admisión de cada polo en su opuesto".

Nahiz eta botere politikoa juridikoki antolaturiko boterea denaren baieztapenarekin ados egongo ginatekeen, ez dugu zertan botere politikoa botere estatalarekin parekatu behar, ezta estatu modernoan zuzenbide positiboarekin juridikoki antolaturiko boterea ere.

Antropologia juridikoak Zuzenbide bezala ulertzen duguna birpentsatzeko aukera eskaintzen digu. Sistema juridiko tradizional eta moderno²⁶ ezagutza orokor edo osoa beharrezkoagoa²⁷ egiten da egunetik egunera, Zuzenbidearen Teoria Orokor batez benetan hitzeging nahi baldin badugu bederen.

Esan dugun bezala, gizatalde guztiek gizartearen barneko beren jokabidea doitzen badute eta baita beraien taldearen kontaktua besteekin ere, gobernu dutela baieztatu beharko dugu, eta ondorioz, guk Zuzenbide deiturikoaren arau orden analogoak dituztela.

Afrikan badira ordena poliziaren bitartez edota papuen gisara limurketa moralaren bitartez mantentzen duten herriak. Santzioak erregeek - Polinesiar bezala- indartuak izan daitezke, edota -Melanesiar bezala- odol mendeku baten bidez.

Ikerketa berriek A.Knopf-ek²⁸ galdetzen dituen bezalako kuestioez aritu behar dutela uste dugu: "¿Cuál es el papel que desempeñan todos los modos de establecer orden en las vidas de la gente? ¿Qué variaciones se señalan en las formas que adoptan? ¿Con qué grado de eficacia funcionan?".

3.2. Zuzenbidea eta Estaturik gabeko gizartearen arteko harremanak

Zuzenbidea eta Estaturik gabeko gizartearen arteko harremanen ikasketak gure gizarte eta kultura propioak garatzen dituen marko kontzeptual edo teoriko desberdinen barruan kokatzen direla azaldu beharra daukagu berriro ere.

Antolamendu politikoari buruzko lehen ikasketak antropologikoez aritu garenean, hauek errealitatea jasotzeko modu zehatz bati nola erantzuten zioten ikusi dugu, eta hori zen eboluzionismoa. Errealitatea aztertzeko modu berezi horrek, aintzin herrien antolamendu politikoaren formak etorkizuneko Estatuaren jatorri edo hazi bezala elkar uler zitezela eragiten zuen.

Plano juridikoan, eboluzionismoak Zuzenbidearen ikertzaileengan eta haien ekoizpen teorikoetan eragina izango du. Hauetan, Zuzenbideak (gure Zuzenbideak) aintzin ohituretatik legedi (Zuzenbide) modernurainoko (zibilizatu-arrazional) bilakaera prozezu bati erantzuten diola baieztatuko da.

Gure errealitate juridikoa, Zuzenbidea morala eta erlijioa bezalako arau ordenetatik bereiztearen prozesu baten emaitza bezala ikusiko da. Prozesu hau, Estatuari egindako Zuzenbidearen eraketaren transferentzia progresiboarengatik bereizten da, gizarte zibilaren eta Estatuaren²⁹ artean bitartekari bezala jardungo duten santzio organo berezi batzuen agerpenaren bidez. Baina eboluzionismo politikoa funtzionalismoak erantzuten duen modu berean, eboluzionismo juridikoa funtzionalismo juridikoak erantzungo du. Hain zuzen ere, bi arau orden hauek oso lotuak daudelako.

Bi dira Zuzenbidea eta antolamendu politikoaren artean existitzen diren harremanen azalpenari begira proposamen funtzionalistaren aldarte nabariak edo errebanteak. Alde batetik, Zuzenbidea ez bakarrik arau abstraktu eta independente³⁰ bezala, baizik eta errealitatean zuzenki behagarri diren gertaera zehatzak bezala kontuan hartzeko beharra. Eta bestetik, Zuzenbidea gizarteko antolamenduaren beste errealitateekin harreman estuan aurkitzen den arau ordena bezala hartzearen beharra, eta beraz, aipatutako gizarte³¹ antolamendu politikoen moduekin.

Jarrera berri hau, Zuzenbidearen arauen azterketetatik eskaintzen den Zuzenbidearekiko ikusmoldea nabarmentzen saiatzen da. Hauetan,

26. Gure Estatuak erakunde politikoek arazo desberdin eta asko aurreman behar dituztelako.

27. Zuzenbidearen ikasketak ezin ditu sistema erromatarak eta Common-Law-en sistemak bakarrik hartu kontuan eta Mendebaldekoak ez direnak kanpoan utzi.

28. A.KNOPF o.c., 147. or.

29. Ikus itzazue L.MORGAN, *La société archaïque*, Paris, Anthropos, 1971; H.S. MAINE, *Ancient Law*, London, Oxford University Press, 1959; E.DURKHEIM, *Leçons de sociologie: physique des mœurs et droit*, Paris, P.U.F., 1969 eta E.ADAMSON-HOEBEL, *The Law of Primitive Man*, Cambridge, Mass., 1954.

30. Jarrera hau denbora luzean Zuzenbidearen Teoria Araukorraren barruan mantendu da, Kelsen, Hart eta Bobbio-k aportazio berriak eman arte.


31. Perspektiba berri hau Zuzenbidearen Teoria Instituzionala eratu duten autoreek eskaini digute. Autore horien artean honako hauek ditugu: S. ROMANO, o.c. Italian, eta M. HARINOU, o.c. Frantziar.

32. Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, tesi hauek honako autorek mantentzen dituzte: Kelsen, Hart, eta Bobbio.

Zuzenbidearen oinarritzko ezaugarria arau esplizitu eta ordenatuen multzo bat izatearena dela seinatzen da, non isunak gizarteak halako helbururako³² izendatutako indibiduo bat edo gehiagok indarra erabiltzea adierazten duen.

Definizio honek Estatuarena bezalako erakunde zentralizatu baten beharra justifikatzen du, arauak ezartzeko eta giza ordena mantentzeko gai dena eta gatazka ekiditeko ere. Modu berean, Estatuarena bezalako sistema zentralizaturik ez duten gizarte horietan Zuzenbidearen existentziaren posibilitatea kentzen da.

Adi bagaude, definizio honekin Estatuaren antolamendu sistema duten mendebaldeko gizarteetan gertatzen den guztia Zuzenbide bezala identifikatzea lortzen da. Baina



Estatuaren³³ tankeran politikoki antolaturiko gizartearen existentzia ez da kontuan hartzen, gatazkak konpontzeko Zuzenbide eta auzitegiak jotzea gaizki ikusia dagoelarik, eta horregatik gatazkak beste mekanismoen³⁴ bitartez konpontzen dira.

Estatua duten nahiz ez duten gizarte antizetan honelako eta bestelako gertaeren egiaztapenarengatik, Malinowski³⁵-k ukatu egiten du Zuzenbidea existitu dadin botere zentral batetik jarriotutako santzio baten existentziaren beharra.

Baina Malinowskik Zuzenbidearen karakterizazioa haren parte operatibo edo funtzionalera mugatzean, gatazken konponbide soil bat bilakatzen du. Modu honetan, Zuzenbideak uste osoz egindako arauen behaketarekin zerikusia duen guzti hori, Zuzenbidearen esparrutik kanporatua geratzen da. Horrez gain, gauzen beste orden guziak -ez iadanik Estaturik gabeko gizartearen Zuzenbide-ezinezkoa egingo luke Estatuaren duten gizartearen Zuzenbidea azaltzea.

Zuzenbidearen arauen azterketaren eta azterketa funtzionalistaren elkarlanaren ondorioz, "pluralismo juridikoa"³⁶ deritzon ikuspegi berri bat sortu da gaur egun Zuzenbidearen ikasketarako, batez ere baieztapen honetan oinarritzen delarik: *"toute société, à des degrés d'intensité variable, possède une multiplicité hiérarchisée d'ordonnements juridiques, que le Droit officiel reconnaît, tolère ou nie"*³⁷.

4. Zuzenbidearen Teoria Orokorrean eraginak

Zuzenbidearen eta botere politikoaren ulermenera lehen hurbilketa hau egin ostean, baita antropologia juridiko eta antropologia politikoaren esparruan beraien artean ezartzen diren harremanetara ere, eta gure adimeneko eskemek eta teorikoen gurearengandik at dauden gizarteetan errealitate horiez dugun ezagutza zehazten duten modua egiaztatu ondoren, ez dugu artikulu hau bukatu nahi gure gizarte propioaren ulermenari eta kritikari begira -eta zentzu honetan gure Zuzenbideari-, gertaera honek dituen eragin posibleak ikusi gabe.

33. Hau da Txinaren kasua, N. NORBERT-en obran agertzen den bezala: *Anthropologie juridique*, Paris, PUF, 1990. 78. or.

34. Artikulu honetan ez gara gatazkak konpontzeko mekanismoetan sartuko, baina oso garrantzitsua da hemen mantentzen dudana ondo ulertzeko.

35. B.MALINOWSKI, *Crime and Custom in Savage Society*, New York, 1926.

36. S. Romano, M. Hauriou, E. Gierke eta A. Gurvitch. Beste autoreen artean hauek dira kontzeptu berri hau garatu dutenak.

37. N. NORBERT, o.c., 39. or.

Aintzin edo indigena³⁸ deritzogun gizarteei buruz antropologoen burututako ikerketetan agertzen diren datu batzuk kontuan izango ditugu, baita soziologoen gurei buruz eskaintzen dituzten ikerketetakoak ere. Datu serie hori kontuan hartzen badugu, gaur egun aurki dezakeguna ikusiko dugu: 1) Estaturik gabeko gizartearen existentzia (Estatuen barruan), non "estatal" arauak bezala ezagutzen ditugunetik argi eta garbi desberdingarriak diren arauak existitzen³⁹ diren. Halaber, sarritan bi araudi moduak kontraesanetan jartzen dira. Arau estatalaz zera ulertzen dugu: bakarrak bezala onarturiko, eta beraz, Estatu deituriko lurralde horietan subirano diren gobernuek ekoiztu eta betearazten dituzten arauak. Baina bai Afrikan eta baita Ameriketako zati handi batean ere, arau ekoizpen modu propioak dituzten gizarteekin egiten dugu topo, lekuan lekuko epaileak izendatzen dituztelarik; poliziak dituzte, espeteak gertu, baita gune bat edo batzuetako buru edo gobernadoreak izendatzeko prozedura desberdinak ere, gutxi gora-behera zabal den lurralde hori izanik aipatutako buru edo gobernadoreen arauak eraginkorrak diren lekua; 2) Munduaren toki desberdinetan, baita Europan bertan ere, Estatu baten lurralde gutxi gora-behera garrantzitsua menperatzen duten talde matxinatuen existentzia egiaztatzen dugu, Estatu horien gobernuekin boterea borrokatzen dutelarik. Behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, Zuzenbidearen Teoriak hautematen duen gobernuaren eredu dira. Matxinada prozesua dagoen momentuaren arabera, zerarekin aurkitzen gara: ez bakarrik arauekin, orokorrean Zuzenbidetzat ulertzen dugunarekin baizik; "la existencia de normas, complejas organizaciones judiciales, estrictas administraciones de cosas y territorios, y claras reglas para la elección o nombramiento de funcionarios"⁴⁰; 3) Lurralde zehatzetan beren legea inposatzen duten narkotrafikanteen erakunde desberdinak. Nahiz eta gure teoriaren barnean delitugile bezala ulertuak dauden eta hala deitzeko denok ados egon, kontuan izan modu berean ulertzen ez dituen pertsona kopuru handi badagoela; 4) badira Estatuaren organismoetatik at beren gatazkak konpontzen dituzten taldeak, taldeko kideei

zenbait arau inposatzen dizkietelarik eta horrez gain, batzuetan, beren eraginkortasuna zaintzeko prozedura eta santzioak dituzte. Espazio urbanoen okupazioan, okupazio ekintza desberdinak burutzeko momentuan talde hauek ez dira beren arau propioez bakarrik zuzentzen, baizik eta, gero, talde propioak dituen arauen arabera kudeatzen dituzte ondasun horiek⁴¹.

Gu lehen mota edo klaseaz arituko gara; hots, "estaturik gabeko gizarte" izendatu ditugun horiez, beste fenomenoak hurrengo azterketarako⁴² utziz.

Zuzenbidearen Teoriak garatutako kontzeptuetan oinarrituz Estaturik gabeko gizarteetan ematen diren fenomenoak azaldu nahi baditugu, bi aukera besterik ez zaizkigu geratzen. Lehenengoan, delituen eta funtzioen usurpazioen multzo jarrai bat bezala ikus ditzakegu; edota bigarrenean, aipatutako lurraldeetako kideek betetako arauak teoriak Zuzenbide bezala jasotzen dituenak ez, baizik beste batzuk direla onar dezakegu eta honekin, talde honen arauen errealitatearekin gertatzen dena aipatutako teoriak azal dezakeela ukatzen ari gara.

Lehenengo aukera onartzen badugu, sen onak esaten digu Estaturik gabeko gizartetako partaide edo kideak ezin ditugula delitugile bezala hartu, ezta haien buruzagiak botere legitimoaren usurpatzaile modura ere. Izan ere, beren arau propioetan oinarrituz aukeratu dira, eta nahiz eta sistema juridiko estatalaren arabera funtzionario mailakotzat hartuak ezin izan, ez du adierazi nahi aukeratuak izan direnerakoa burutzeko beren gizartearen aurrean legitimaturik ez daudenik.

Ez luke gauza handirik konponduko, plano teorikoan bederen, Estatuaren funtzionarioek bigarren momentu batean beste Estatu horietako Konstituzioaren arabera existitu beharko luketen funtzionarioak bezala onar ditzaketela pentsatzeak. Izan ere, hala onartzean edo beraiekiko beste desberdintasun batzuk edukiz (adibidez aurrekontu ofizialetik errekurtsio ekonomikoak haiei zuzkituz), funtzionario hauek fondo publikoen bidegabeko erabilketa bezalako delitua egiten egongo lirarteke.

38. E.E. EVANS-PRITCHARD, FORTES M., eds., *Systèmes politiques africains*, Fortes M., Paris, PUF, 1964. R.L.BEALS, H. HOIJER, "Derecho, orden y sistemas políticos" *Introducción a la Antropología*-n, Madril, Aguilar, 1981. M.J.HERSKOVITS, "Sistemas políticos: La ordenación de las relaciones humanas" *El hombre y sus obras: la ciencia de la antropología cultural*-en, Bogota, FCE, 1976.
39. H.KELSEN-en hitzetan, *Teoría pura del Derecho*, itzulpena Roberto J.Vernengo, Mexiko, UNAM, 1986 "una norma existente es una norma válida, y lo es cuando, además de haber sido producida conforme con el orden jurídico y por la autoridad competente, es efectiva en cierto grado, y pertenece a un sistema eficaz".
40. H.L.A. HART, *El concepto de Derecho*, itzulpena G.Carrió, Buenos Aires, Abeledo-Perrot, 1986. 278. or.
41. "OKUPAS"-en kasua ezagutzen dugu Mendebaldeko gizarteetan. Mugimendu hauek hutsik dauden etxebizitzak betetzen dituzte.
42. Adibidez Correas-ek baieztatzen duen bezala argitaraturik ez dagoen ponentzi batean. "En el caso de grupos insurgentes como kurdos y chechenos "La Teoría General del Derecho" no ofrece otros conceptos para pensar la represión de que han sido objeto, que los de la legalidad de esa acción, legitimando así el genocidio. En efecto, conforme con la teoría tradicional, los gobiernos irakí y ruso no han hecho otra cosa que cumplir con su deber. Dejar de hacerlo, por el contrario, hubiera sido cometer el delito de incumplimiento de los deberes de los funcionarios públicos, obligados por la ley a reprimir a los rebeldes. ". 1995, 3. or.

Honenbestez, bigarren posibilitatea hartu beharko dugu aintzat, hau da, Zuzenbidearen Teoriaren barruan garatutako kontzeptuak ez direla aski lehen aipatu bezalako egoera korapilotsuen azalpena emateko. Gaitasun eza hau gertatu da Zuzenbidearen Teoriak Zuzenbidea definitzeko oinarritzko eredu bezala Estatu europarretan garatutako sistema juridikoak izan dituelako.

Zuzenbidearen Teoriaren barnean kontzeptu berrien beharra, betebeharr nagusi batean bihurtzen da, lehen definitutako fenomenoaren zailtasuna azaldu nahi bada behintzat.

Oscar Correas⁴³-ek, Estaturik gabeko gizarteetan Zuzenbidearen existentziari buruz ikertzen uzten digun kontzeptu multzo bat sartu du Zuzenbidearen Teoriaren esparruan.

Lehenik, arautasun eta Zuzenbidearen artean egiten du bereizketa, orden edo sistema arautuak eta orden edo sistema juridikoen artean. Ikusi dugun moduan, ikertzaile eta teoriko desberdinen artean adostasuna dago gizarte guzietan (estatuarekin edo gabe) kideen jokabidea doitzen dela esaterakoan, hots, orden edo arau sistemak dituztela. Jakiteke daukaguna da arau sistema horiek juridikoak ote diren, Zuzenbidea ote den.

Galdera honi erantzuna emateko, hurrengo kontzeptuak eraikitze beharra ikusten du lehenik eta behin; izan ere, Estaturik gabeko gizarteetan Zuzenbiderik ez dagoela dion Zuzenbidearen Teoriaren barruko baieztapenik orokorra zalantzan jartzen lagunduko baitiote aurrerago. Kontzeptuak hurrengo hiru hauek dira: *“pluralismo normativo”, “órdenes o sistemas normativos alternativos”, “órdenes o sistemas normativos subversivos”*.⁴⁴

Aniztasun araukorragatik zera ulertzen du: lurralde berean men egitea aldarrikatzen duten eta arau sistema desberdinekoak diren arauen elkarbizitza. Definizio hau kontuan hartuz, Estaturik gabeko gizarteetan, lurralde berean beteak izan nahi duten arauen bi multzo edo bi arau sistema desberdinen existentziarekin aurkituko ginatke. Zuzenbidearen Teoriaren esparruan, afera estatalari ez zaio soilik juridiko deitzen, horrez gain sistema juridiko bakarria izan dadila ere nahi da.

Hautazko orden edo arau sistemagatik zera ulertzen du: arauen sistema horietan, Estaturik gabeko gizarteetako kideak arau sistema estatalarentzat (sistema juridikoa) delitu edo jokabide antijuridiko diren jokabideak egitera behartzen dituen arau bat behintzat aurki dezakegula. Arau hauen eraginkortasunak arau sistema estatalaren (sistema juridikoa) arabera, delitu bat osatzen du.

Orden edo arau sistema iraultzaile gisa, orden edo sistema menperatzaileari -sistema estatalari alegia (juridikoa)- hegemonia borrokatzen dioten arau sistema alternatiboak ulertzen ditu. Hau da, arau sistema alternatiboa iraultzailea izango da baldin eta bere eraginkortasuna handitzean, arau sistema estatalaren (juridikoa) eraginkortasunaren txikitzea badakar.

Estaturik gabeko gizarteetan orden edo arau sistemak, orden edo sistema juridikoak (Zuzenbidea) ote diren zehazteko, Estatua duten gizarteetan orden arautuez predikatzen den juridikotasuna zertan datzan jakin behar dugu lehenik; hau da, zer da sistema horiek juridiko deituak izan daitezela eta beste batzuk aldiz ez justifikatzen duena?. Esparru teorikoan galdera hau praktikoki hutsala izan da. Izan ere, Estatua duten gizarteetan sistemen arau eredu propioetatik hartua izan da beren juridikotasuna predikatze, inongo momentutan definitu gabe. Hau, Estatu deituriko lurralde horrentzat bakarria den arau sistema baten bitartez erabiltzen den botereari zor zaio, eta aipatutako sistema bakarria da, ezagutza edo Grundnorm⁴⁵ arau bat bakarrik existitzen baita. Zuzenbidearen Teoria arau sistema horiek ikasi ahal izateko aritu da kontzeptuak eskaintzen, eta ez beste juridiko deituriko beste batzuk.

Errealitate teoriko hau (Estatua duten gizarteetan arau sistemei juridiko deituz eta ez juridiko Estatu gabeko gizarteetan arau sistemei) uler daiteke kontuan hartzen badugu aipatutako sistemak erreparatu ez den botere zentral eta botere lokalaren arteko borrokaren ondorio historikoa direla, lehenaren garaipenarekin. Botere zentrala eta botere lokalaren arteko borroka sortu zen unean zilegi izan zatekeen hurrengo galdera: zergatik da juridikoko erregeak zuzentzen duen araudi sistema, eta besteak (jauntxoak) aldiz ez?.

43. Argitaraturik ez dagoen ponentzia, baina INSJOn aurki daiteke. Jarrera berberetan aurki ditzakegu ere: A. TRIANA ANTORVEZA, “El estado y el derecho frente a los indígenas” 41-56 orr. *Entre la ley y la costumbre, Instituto Indigenista Interamericano e IIDH-n, 1990*. M. GAYOSSO Y NAVARRETE, “La cosmovisión de los nahuas, punto de partida para una interpretación sistemática de su derecho”, *Documentos-en, 1991, 7, 59-79 orr.*

44. Aniztasun araukorra, hautazko sistemak edo ordenak, sistema iraultzaile araukorrak

45. Kelsenek sortu zuen kontzeptu hau. Grundnorm kontzeptua jarrera teoriko desberdinetatik kritikatu izan da oso.

Teoria politikoaren esparruan arazo hau mahaieratzean, Subiranotasunaren Teoria jasotzen da erantzun bezala. Honek, lurraldea Estatuak soilik legisla dezakeela baieztatzen du. Baina momentu haietan Estatuak besteak baino boteretsuagoa zen jauntxo baten xedea besterik ez zen. Une horretan lurralde europarrak araudi sistema subirano bakar baten arabera antolatzen dira, baina bere hegemoniaren menpe batasuna nahi zuen jauntxoak, beste guztiei gudan garaitu zielako.

Zuzenbidearen Teoriak isilean gordeko du gertaera hau, eta modu horretan, halako gizarte motetan (Estatuak duten gizarteetan) existitzen ziren araudi sistemak juridiko bezala definitu ditu, beste guztiei antijuridiko edo ez juridiko deituz.

Zuzenbidea eta Estatuaren artean ezarri diren harremanak funtsezkoak dira araudi sistema bat sistema juridikotzat jotzerakoan, eta aldi berean Estatuarenak ez diren araudi sistemei ezaugarri hau ukatzerakoan.

Oscar Correas-ek dioen moduan, "la pregunta por la juridicidad se planteó, en la Teoría General del Derecho, con otro ropaje, como la ineludible cuestión propuesta por la escisión entre estado y sociedad civil, entre estado y ciudadano, entre público y privado, y en el fondo, entre moral y derecho, entre ética y política. Por lo demás, las explicaciones filosóficas, como la del propio Kant, no eran sino la respuesta al *hecho*, empírico o *cuasi empírico*, de esta escisión. La cuestión apareció, entonces, como la de encontrar el criterio de separación entre las normas producidas por este poder llamado *estado*, y otras normas que comenzaron a verse como distintas, y que terminaron llamándose *morales*"⁴⁶.

Baina, beha dezakegun bezala, ez zen araudi sistema araukor hegemonikoaren juridikotasuna jartzen zalantzan, baizik eta Estatu deituriko botere bakar horrek ekoiztutako arau multzoaren eta teoriak ikasketa objektu bezala aukeratutako beste arauen (araudi sistemarekin mantentzen duten harremanagatik definitutako) arteko desberdintasuna agertu nahi zen. Sistemak, bakarra ez izan arren, bakarra dela esango du, eta hori esan ondoren beste sistemak zer diren definituko du. Teoriak "lo otro" bezala aztertu ditu bakar autoizendatutako jarrera batetik, eta ez neutraltasun jarreratik. Izan ere, horrela egin izan ez balu, juridiko bezala defendiarazten zen araudi sistema -eta besteak berriz ez-pribilegiatzen zenaren zergatia azaldu behar izango zukeen teoriak. Galdera hau burutu ez izanak, estatu gabeko gizartearen araudi sistemak

ez juridiko bezala definituak izatearen ondorioa ekarri du, eta beraz, Zuzenbide gabeko gizarte bezala.

Teoriak, araudi sistema mota bakar baten azterketaz soilik arduratzerakoan batera, ez zituen azaldu bakarrik egiten, baizik eta aldi berean zilegitu ere egiten zituen. Zilegitzerakoan, desberdina zen beste edozein sistema arautu Zuzenbide gabekoa zen, eta horrenbestez, ez zilegitzkoa (ilegitimoa).

Teoria juridikoen barruan, botere eratzalearena, herriaren izpirituarena, edota adostasun demokratikoarena bezalako teoriak agertu ziren, haien eraginkortasuna, sistema hegemonikoa juridikoa den bakarra denaren ideia garatzean egon delarik.

Azkenik, teoriak Zuzenbidea benetan karakterizatzen duena zer den aurkitu du, eta moraletik edo beste edozein orden arauturik desberdintzen laguntzen digun ezaugarria, Zuzenbideak indarkeriarekin mehatxatu, antolatu eta zilegitzen duela da, eta santzioa du bereizgarri. Izan ere, beste sistemetan ez da hau ematen.

Baina teoriak eskaintzen digun Zuzenbidearen definizio honetan erreparatzen badugu, bertan arrazonamendu zirkular edo tautologiko bat burutzen dela beha dezakegu; hori dela eta, ezinezko egiten zaigu errealitatea azaltzeko erabiltzea. Guk A, B-ren berdina dela eta beraz, B A-ren berdina dela baieztatzen badugu, arrazonamendu oso zuzena egiten arituko gara, baina errealitatean gertatzen denaz ezer gutxi adieraziko digu.

Modu honetan definitutako indarkeria indarkeri legitimoa da, hots, Zuzenbidearena, baina badira beste indarkeria batzuk; horrenbestez, galdera hau da: nork dio indarkeria erabiltzeko legimitatea duena gobernu estatala dela eta ez matxinatuak? Erantzuna argi dago, Zuzenbideak. Baina erantzun honekin ez dugu ezertxo ere konpondu. Izan ere, galdetzen ari garena da zergatik den estatuaren indarkeria Zuzenbide da eta bestea aldi ez. Planu teorikoan, orden arautu zehatz batek Zuzenbidea dela esaten duen denbora berean bestea ez dela dionaren justifikazioa besterik ezin dugu topatu, eta hau sinisten duen pertsona kopuru handia dago.

Zuzenbidearen eta botere politikoaren forma estatalaren artean ezartzen den harremana kontuan badugu, araudi sistemaren juridikotasuna

46. Oscar Correas o.c., 6. or.

ez da benetan existitzen. Izan ere, teoriak hura definitzeko erabiltzen duen kategoria huts bat soilik da. Errealtatean existitzen dena, arau diskurtsoaren bidearen bitarteko boterearen erabilpena da. Ildo honetatik, juridikotasuna, sistema araukor bat beste guzuen gainetik legitimatzen edo pribilegiatzen laguntzen duen kalifikatiboa besterik ez da, beste arau sistemak antijuridiko izendatuaz.

Suposa dezagun Estatua duten gizarteen orden edo araudi sistemek sistema juridiko bakarrak ordezkatzeko dituztela; hau da, gizarte horietan argi bereiz daitekeela Zuzenbidea moralarengandik edo beste araudi sistemengandik, Zuzenbidea indarkeria antolatzen duen bakarra da eta.

Baina kontuan izan behar dugu gizarte hauetan indarkeriarekin mehatxatzen duten arau multzo guziak ez direla Zuzenbide bezala onartuak. Izan ere, Kelsenek proposatu zuen moduan, lehen momentu batean arau bezala kalifikatuak izan litezkeen enuntziatuen zentzu objektibo eta zentzu subjektiboaren artean bereiztu behar da. Kelsenek sartutako desberdintasun honek, planu teorikoan Arau sortzailearen Teoria eraikitzea behartzen du, eta bakarra dela aldarrikatzeke Zuzenbidearen zailtasunak hemen hasten direla esan dezakegu. Izan ere, Heller-en arabera "el gran mérito crítico de Hans Kelsen ha sido el haber señalado que la validez jurídica no puede basarse en su establecimiento por un poder de voluntad no sometido a normas. Sin embargo la solución que da al problema de la validez, apelando a la hipótesis de una "norma fundamental" que declara: *condúcete tal como ordena el monarca o el parlamento, no es, en puridad, otra cosa sino un mero cambio de nombre de la voluntad estatal no trabada por normas. . Pues si es la norma fundamental <la que instaure la autoridad constituyente>, y si la Constitución extrae su <validez jurídicamente relevante, de esta norma originaria>, en tanto que su contenido procede <del acto empírico de voluntad de la autoridad constituyente>, vendremos así a tener, de una parte, una norma fundamental sin contenido y, por consiguiente, no sometida a normas, alias voluntad del Estado, y , de otra parte, una Constitución que toma su validez de la voluntad, no sometida a normas del Estado*"⁴⁷. Arau honen erabilpena oinarritzen deneko pentsamendu prozesua, arau baten zentzu subjektiboa bere zentzu objektibo bezala arrezagutzeko erabaki bat da, eta beraz, norbaitek beste batez esaten duena, hutsegitearen aukera dagoelarik. Edo beste edozeinek aurrekoarekin kontraesanean

dagoen erabakia har dezakeenaren aukera. Izan ere, aginduaren egilea arrazoi desberdinengatik ez zilegi bezala hartua izan daiteke, gaizki izendatua izanagatik edo bere autoritatearen erabilpenean gehiegikeriagatik. Eta teoriak arau sortzailearen zientifikotasuna baieztatu dezakeen irizpidea aurkitu ez duenez, edozein kontzientzientzat posible da arau bat juridikoa den ala ez erabakitzea, hegemoni, prestigio eta baita indarraren laguntzaren jokuetara loturik geratzen dela pentsatzea.

Kuestio hauek hain dira errealak, ezen Estatua duten gizartearen araudi sistemen barruan (hots, juridiko deritzogun sistemen barruan) behin baino gehiagotan planteatzen direla arauen ulermenaren kuestioa. Jurista batek arau bezala eskatzen duen agindua, beste jurista batek edo epaileak ez arau bezala har dezake. Ondorioz, Zuzenbidea eraginkorra da araudi sistema horren ezaugarri propioekin zerikusi gutxi duen onargarritasun prozesua batera produzitzen delako. Justifikapena sistema propioetik at eta boterearen erabilpen forma zehaztu batean dago.

Kelsenek berak, Grundnorm teoria fikzio bat dela onartzen du. Izan ere, pentsamenduak esperientziaren datuekin ezin duenean azalpenik eman, sortu edo asmatu egiten ditu. Fikzioa hipotesiarekin nahastearen arriskua, bigarrenaren kasuan sorkuntzak edo asmakizun mentalak eraketa mental bezala ulertuak diren bitartean, fikzioan ez dela gauza bera gertatzen da eta fikzioaren egileak eraikuntza hori errealtatearen azalpen objektibo bezala onar dezakeela.

Orain arte esandakoa kontuan badugu, onartu beharra daukagu Estatua duten gizartearen araudi sistemek, fikzio bat -hots, adimen eraikuntza asmatu bat- besterik ez den justifikazioen kate bati esker lortzen dutela juridiko kategoria. Juridikotasuna eskeintzen duen juridikotasunik ez dago, ez dago arrazoirik araudi sistema bat juridikoa dela esateko, horrela kalifikatzen dugunaren gertaera enpiriko soila ezik, hau da, estatua duten gizarteetan ematen diren orden arautuak juridikoak eta beraz, eraginkorrek direla esatea.

Juridikotasunik ez badago edo Estatua duten gizartearen araudi sistemei arbitrarioki eskaintzen zaien fikzio bat bada behintzat, ez dirudi oso zaila modu berean estatu gabeko gizartearen araudi sistemak ere juridiko direla baieztatzeak.

Baina ziurtasun gehiagorekin argudiatu nahi badugu, galdetu behar duguna da zeintzu

47. Heller op.cit. 208. or.

liratekeen (Afrika, Amerika eta beste kontinenteetako) Estatu gabeko gizarteetako araudi sistemei beren izaera juridikoa edo juridikotasuna ukatzeko arrazoiak.

Bere mesedetan esan behar dugu sistema hauetako arauak komunitateko gizabanako adituek eratu eta aplikatutako arauak direla, orden bereko beste arauetan oinarriturik aukeratutakoak; orden hauen bitartez derrigoriketa antolatzen da eta horrez gain, onartuak, jasoak eta obedituak dira. Maiz, juridiko deitzen dugun sistema estatalaren arauak baino gehiago dira. Aldiz, bere kontran esan behar dugu araudi sistema hauek ez dituela nazioarteko komunitateak onartu. Baina azken ezagurri hau ez da aski juridikoak ez direla esateko. Izan ere, Zuzenbidearen Teoriaren esparruan ez da inoiz esan araudi sistema bat juridikoa denik nazioarteko Zuzenbideak hala arrezagutu izanagatik. Halere, Teoriaren barnean esan da nazioarteko Zuzenbideak arau sistema bat juridiko bezala onartzen duela sistema hori eraginkorra denean. Hau da, baliogarritasun irizpidea bere eraginkortasun propioa da eta ez nazioarteko komunitatearen onarpena. Inork ez lioke Txinako Zuzenbideari bere izaera juridikoa ukatuko. Honenbestez, aplikatu behar dugun irizpidea arau baten baliogarritasuna bada, hau bere eraginkortasunaren arabera egonik, ezin dugu Estatu gabeko gizartearen araudi sistemen arauak eraginkorrak izanda baliogarriak ez direnik arrazoiz esan. Irizpidea unibertsalki aplikatu behar da, bestela ez da irizpidea, eta are gehiago, jarrera ideologiko bat defendatzeko erabiltzen dela dirudi.

Azkenik, estatu gabeko gizartearen araudi sistemen juridikotasuna baieztatu ahal izateko, orden arautu bat juridikoa izan dadin lurralde mugatu batean bakarra eta pertsona kopuru zehatz batentzat izan behar duela sostengatzen duen ideologia eman behar dugu ezagutzera, baita bere itxura faltsua kendu ere. Hau da, sistema bakar eta subiranoaren ideia -edo subiranotasunaren ideia, hala nahi bada- berririo ere teoria politikoarekin estuki lotutako kontzeptu bat da.

Honenbestez, subiranotasuna, kontzeptu juridiko izatetik kontzeptu soziopolitiko bat izatera igaro da: herri bat subiranoa da, baldin eta gobernu batek ematen dituen arauen edukia ez badago atzerriko elementu sozialen borondate eta botereari menpekotua. Modu honetan, subiranotasunak orden arautua bat bakarra dela besterik ez du esan nahi, eta horregatik ez da beste inongo orden arauturik onartu behar juridiko bezala lurralde mugatu baten barruan eta pertsona kopuru mugatu batentzat. Izan ere, juridikotasuna esklusibotasunagatik definitzen da, errealitatea azaldu ez arren. Ez ditugu "izan behar" eta "izan" nahastu behar.



Ondorioz, teoriko ikuspegi batetik, zer da estatu gabeko gizartearen araudi sistemak juridiko bezala definitzen galarazten diguna? Ikusten denez ezertxo ere ez.

Arau aniztasuna onartzeko gai bagara, orduan, antropologia juridikoak proposaturiko pluralismo juridikoaren ideia onartu beharra daukagu.

5. Ondorioak

Lan honetan, gure gizartearen Zuzenbide bezala ezagutzen dugun fenomeno hori azaltzeko Zuzenbidearen Teoriaren barruan garatu diren zenbait kontzeptuei buruz arakutzen aritu gara. Kontzeptu hauek ez direla nahikoak izan eta behin baino gehiagotan interesatuki erabiliak izan direla kontuan hartuz, Estatu baten barruan orden edo araudi sistema desberdinen elkarrizateak suposatzen duen zailtasuna ulertu ahal izateko antropologia juridiko eta politikoaren ikerkuntzetara jo dugu.

Gehien interesatu zaigun galdera, gure eraikuntza kontzeptudun propioetatik, estatu gabeko gizartearen araudi sistemak juridikotasunik

gabeko sistemak direla baieztatu dezakegun jakitea izan da. Hau gizarteak diren heinean, Zuzenbidearen gizarte ere izan behar ote dute.

Gure azken ondorioa da argudiatua, gure teorian ez dugun irizpiderik aipatutako gizarteak gabekoak direla esateko eta Estatu zuzenbidearen artean ematen diren pribilegiatzen dituen ideologiaren faltsua ezagutzera eman behar dela ere, estatuak izatean, ez du teoretikoki deneko esparruak bere helburu egiteko seta teoriko nahikoa izan behar boterearen erabilpenaren azalpena justifikazioa direlarik.

Gure teoriak, gure gizartearen Zuzenbideraren arteko harremanak dira eta gertaera honek Estatuaren gizarteetan ematen diren araudia azalpena ezinezko bihurtu du, beraz, oker bat burutuz, hau da, beste gauza beraren parte izan daiteke.

Araudi sistema batek badu, Zuzenbide izateko- eraginkortasun badu, aintzineko izendatzen dituzten ematen diren zenbait araudi sistemetan bezain Zuzenbide dira, eta ez gure Zuzenbidearen umeki soila.

Gizarte horren kideen jarduera ordena mantentzeko, arauak bete dituztenak isuntzeko, aipatutako araudia izango diren mekanismoak definitzeko arauak zehazteko... gurea bezain dira.

Juridikotasuna, legitimitasuna, subiranotasuna, baliogarritasuna, eraginkortasuna zenbait lurralde barruan elkarbizitzan dauden eragilei buruz kontu emateko kontzeptuak dira. Juridiko indarraren erabilpenaren bitartekoa bakarrik merezi duela eta beraz, obeditua izan behar duen bakoitzaren egunera geroz eta eutsiezinago. Gaur egun gizatalde desberdinen garrantzizko loturari erantzuna emateko bide egokia.

